


## 9. atala **BASERRIA**

- Iurretako kofradietan baserri asko ikusi ditugu Jone!
- Hala da Aritz!

Mutikoa adi ibili zen Iurretan zehar aurreko egunetan egindako ibilaldietan. Gero eta hobeto ezagutzen zuten beren herria eta baita han jazotako gertaera historikoak ere.

- Jone, baina baserri hauek ez dira Erdi Aroko etxola boro-bil haien modukoak.
- Ez. – Esan zuen Jonek irribarrez – Erdi Aroaren bukaera aldera bandoen arteko borroka amaitu eta bakealdia luzatu zenean aurreko etxola, dorretxe eta hiribilduek baserriei utzi zien lekua.
- Hauen moduko baserriak beraz! - Esan zuen Aritzek pozik.



- Beno, hasieran egurrez egiten zituzten atari handi eta zabal batekin. Beranduago harrizko adreiluak erabiltzen hasi ziren eta orduan atari gaineko egurrezko biga horri zutabe bat jarri zioten erdian.
- Zutabea zertarako Jone?
- Bestela denboraren eraginez hormaren pisuak biga hausten zuelako. XVIII. Mendean aldiz doberekin egindako arkuak nagusitu ziren baserrien atarietan.
- Dobe... zer?
- Dobera Aritz! Modu konkretu batean moztu eta landutako harriak ziren elkarrei eutsita arku bat osatzeko. Horrela pisu gehiago jasan zezakeen atariak.

Neba-arrebak Ertzillera heldu ziren oinez.

- Jone baina hemen inguruan dauden baserri batzuk ez daukate arkurik ez ezer.
- XX. Mendetik aurrera baserri askok euren berezitasun horiek galdu zituzten. Baina begira, badugu hemen garai haietan eraikitako "garai" bat.
- Hara! Zeinen arraroa!
- Bai. Elikagaiak hezetasunetik eta animaliangandik babes-teko eraikitzen ziren horrela, Iurretik distantzia batera zutabeen gainean. Ondo begiratu gero gainera, ohartuko zara zutabe bakoitzaren gainean harri zapal handi bat dagoela. Horrela, zutabeetan gora saiatzen ziren animaliek ez zuten lortzen harri horren traba gainditzea.

### **ARIKETA:**

- Marraztuko zenuke baserri bat? Nolakoa da?